


# museo gida
# guía museos

Goi mailako turismoa
Un turismo de altura

Gorbeia

Gorbeia

TURISMOA
TURISMO

www.gorbeiaeuskadi.com

**Turismo Bulegoak**
**Oficinas de Turismo**

Araba · Alava:
Plaza Bea Murgia.
01130 Murgia
945 430 440
turismo@gorbeialdea.eus

Bizkaia:
Plaza Zubiaur.
48410 Orozko
946 122 695
turismo@gorbeialdea.com

Gorbeialdeko Kuadrilla
Cuadrilla de Gorbeialdea

Cuadrilla de Gorbeialdea
(Murgia, Álava)
945 430 167

Gorbeialde
Landa Garapenerako Alkartea
Asociación de Desarrollo Rural

Adr Gorbeialde
(Areatza, Bizkaia)
946 315 525

# museo gida
# guía museos


Sarriako parketxea
Parketxea de Sarria 4

Euskal buztingintza museoa
Museo de alfarería vasca 5

Irubidaur museo etnografikoa
Museo etnográfico Irubidaur 6

Eztiaren museoa
Museo de la miel 7

Euskal Baserrien Eko Museoa
Eco Msueo del Caserío vasco 8

Areatzako parketxea
Parketxea de Areatza 9

Orozkoko museo etnografikoa
Museo etnográfico de Orozko 10

ADITU zerbitzu arkeologikoak
Servicios arqueológicos ADITU 11




# Sarriako Parketxea

**Sarria (Araba)**
t. 945 430 709
parquegorbeia@parques.alava.net

Ordutegia:

Apirilaren 1etik irailaren 30era: asteartetik igandera, 10:00etatik 14:30etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Urriaren 1etik martxoaren 31ra: asteartetik ostiralera, 9:00etatik 15:00etara. Asteburuetan eta jaiegunetan, 10:00etatik 14:30etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Horario:

Del 1 de abril hasta el 30 de septiembre: de martes a domingo de 10:00 a 14:30 y de 16:00 a 19:00

Del 1 de octubre al 31 de marzo: de martes a viernes de 9:00 a 15:00. Fines de semana y festivos de 10:00 a 14:30 y de 16:00 a 18:00.

Zuia udalerrian dagoen Sarria herritik aurrera joanda iritsi zaitezke Gorbeiako Parke Naturalak bere Arabako aldean duen Interpretazio eta Harrera Zentrora.

Gorbeia ezagutzeko modurik onena bertako kondairak, artea, gastronomia, landa-ingurunea edo tradizioak gozatzean datza, horrela, babestutako naturgune hau hain ondo zergatik kontserbatu den jakingo baituzu. Hori guztia ikus dezakezu Parketxeko interpretazio-gunean eta askotariko informazio zehatza ere jaso dezakezu: ekipatutako eremuak, aparkalekuak, bisita kulturalak egiteko aukerak, hezkuntza-programak, hipika, bizikleta, ibilaldiak, Gorbeiara eta beste mendi batzuetara igotzeko bideak… Parkeak dituen baliabideen aberastasuna diaporama batean ikusiko duzu, eta, gainera, aisialdirako eremu bat ere badago, jolasekin eta mahai eta eserlekuekin.

Desde la localidad de Sarria, perteneciente al municipio de Zuia, puedes acceder al Centro de Interpretación y Acogida del Parque Natural de Gorbeia en su vertiente alavesa.

El conocimiento de Gorbeia pasa por disfrutar de sus leyendas, su arte, gastronomía, entorno rural o tradiciones, para así comprender el porqué de la extraordinaria conservación de esta área natural protegida. Todo ello se muestra en el área interpretativa del Parketxea, además de la información precisa sobre zonas equipadas, aparcamientos, posibilidad de visitas culturales, programas educativos, hípica, bicicleta, senderismo y rutas de acceso al Gorbeia y otros montes. La riqueza del parque y sus recursos se explican en un diaporama y existe un área recreativa en el centro equipada con juegos, mesas y bancos.




# euskal buztingintza museoa

# museo de alfarería vasca

**Barrio Ollerias auzoa, 9**
**Elosu (Araba)**
t. 945 455145
olleriasmuseo@euskalnet.net
www.euskalzeramika.com

Ordutegia:
Astelehenetik Ostiralera: 10:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00
Larunbata: 10:00 - 14:00
Igadea eta jai egunak: Itxita
Taldeak: Hitzartutako bisita, 945 455 145
Dohainik

Horario:
De lunes a viernes: 10:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00
Sábados: 10:00 - 14:00
Domingos y festivos cerrado
Grupos: Visita concertada, 945 455 145
Entrada gratuita

Euskal Buztingintza Museoa Elosuko (Legutio) Ollerieta auzoan dago. Edertasun handiko landa-eremu batean dago, Urkiolako eta Gorbeiako Parke Naturalen artean, eta Arabako urtegien ertzean.

Eraikina garai bateko buztindegi bat da, eta 1993an ireki zuten, jendeak bisita zezan. Blanka Gomez de Segurak jarri zuen martxan proiektua. Buztindegia 1711n eraiki zuten, eta bertako tailerrean Ortiz de Zarate familiako belaunaldi askok egin zuten lan.

Museoan antzinako piezak ikusi ahal izango ditugu, eta baita buztingilea lanean ikusi ere. Eraikinaren lehenengo solairuan euskal zeramika herrikoiaren 380 piezako bilduma dago ikusgai, eta, eraikinari itsatsita, antzinako labe handi bat ere badago.

Gainera, dendan, gaur egun ere garai bateko moldera, eta garai bateko maitasunez, egiten diren zeramika-piezak erosteko aukera dago.

El Museo de Alfarería Vasca, situado en el barrio de Ollerías de la localidad de Elosu (Legutio), se alza en un enclave rural de gran belleza natural, entre los Parques Naturales de Urkiola y Gorbeia y a orillas de los embalses alaveses.

El edificio es una antigua ollería rehabilitada y abierta al público en 1993. Este proyecto fue puesto en marcha por Blanka Gómez de Segura. La ollería, construida en 1711, era el antiguo taller de alfarería donde trabajaron varias generaciones de la familia Ortiz de Zárate.

En el Museo podemos contemplar las piezas antiguas y ver trabajar en el torno de alfarero. En la primera planta del edificio se expone una colección de 380 piezas de cerámica popular vasca y anexo al edificio se encuentra el enorme horno antiguo.

Además, en su tienda, pueden adquirirse las cerámicas que hoy en día se siguen haciendo artesanalmente y con el mismo cariño de antaño.



# Irubidaur museo etnografikoa

## museo etnográfico Irubidaur

**Eskola kalea, 2**
**Las Escuelas, 2**
**IZARRA (Araba)**
t. 945437297

Ordutegia:

Aldez aurretik hitzordua hartu behar da.

Horario:

Es necesario concertar cita con anterioridad.

Irubidaurreko Museo Etnografikoa (Izarra) 1996. urtean ireki zen. Bertan, zonako bizimodu tradizionala eta historia azaltzen dira. Museoan gure arbasoen bizimoduaren eta artearen erakusgarri diren objektu eta elementu ugari dago. Horien artean, aipagarriak dira etxebizitza eta etxeko tresnak, nekazaritza, ehiza, abeltzaintza, artisautza eta trenbidearekin lotutakoak; trenbideak eragin handia izan zuen garai bateko Urkabustaizeko gizartean eta ekonomian. Museoan ikusgai dauden elementu guztiak udalerriko biztanleek utzitakoak dira.

Museoa Izarrako alde zaharrean dago, zubiaren ondoan, eta Doña Lola etxeari atxikitako eraikin batean dago; garai batean txabola moduan erabiltzen zen eraikinean, hain zuzen.

El museo etnográfico Irubidaur, se abre en el año 1996 y en él se presentan las formas de vida tradicional e historia de la zona. El museo consta de una amplia representación de objetos y elementos característicos de los modos de vida y saber hacer de nuestros antepasados. Entre ellos destacan los relacionados con la vivienda y enseres de la casa, la agricultura, la caza, la ganadería, la artesanía y el ferrocarril, que tanta influencia socioeconómica tuvo en otros tiempos en Urkabustaiz. Todos los elementos allí expuestos han sido cedidos por los habitantes del municipio.

El museo se encuentra situado en la parte antigua de Izarra, junto al puente, y se aloja en un edificio anejo a la casa "Doña Lola", que antaño hacía las funciones de cabaña.



# eztiaren museoa

# museo de la miel

**Casa Oregi Etxea**
**Calle Domingo de Sautu kalea**
**MURGIA (Araba)**
t. 945 43 01 67 / 945 43 04 40

Ordutegia:

Martxoa (19tik aurrera), apirila, maiatza, ekaina, iraila, urria eta azaroa (lehenengo asteburua): Larunbata, Igandea, jai egunak eta Aste Santua. 12:30 - 13:30

Uztaila eta abuztua: Larunbata, Igandea eta jai egunak. 11:00 - 13:00

Beste ordutegietan: Deitu 945 430 440 zenbakira hitzordua hartzeko.

Horario:

Marzo (a partir del día 19), abril, mayo, junio, septiembre, octubre y noviembre (primer fin de semana): sábados, domingos, festivos y semana santa. 12:30 - 13:30 horas

Julio y agosto: sábados, domingos y festivos: 11:00 - 13:00

Otros horarios: llamar al 945 430 440 para pedir cita previa

Oregi Etxean dago, Murgiako hirigunean. Berari esker, eztigintzaren mundu zoragarrian murgildu ahal izango gara, eta Gorbeia aldeko eztia non eta nola egiten den ikasi. Erlauntzak erabiltzeko eta eztia eta eratorriak egiteko gure arbasoek erabiltzen zituzten tresnak eta gauzak erakusten dira museoan.

Museoaren bigarren solairuan diaporama ikus dezakegu, bertan erlezaintza, erle eta eztiaren munduari buruzko informazioa ematen da.

Situado en la Casa Oregi, en el casco urbano de Murgia, nos adentra en el fabuloso mundo de la apicultura y podemos ver dónde y cómo se produce la miel elaborada en la zona del Gorbeia. En él se exponen instrumentos y diversos elementos utilizados tradicionalmente en el manejo de las colmenas y en la elaboración de la miel y sus derivados.

En la 2ª planta del museo está ubicado el diaporama con un reportaje sobre el mundo de las abejas, la miel y la apicultura en general.



# Euskal Baserrien eko museoa: Artea

# Eco museo del Caserío vasco: Artea

**Herriko Plaza**
**ARTEA (Bizkaia)**
www.euskalbaserria.com
t. 946317086

Euskal Baserriaren erakusketaren atala. (20-30 min.)
Astelehena, osteguna eta ostirala: 10:00-13:00 / 17:00-19:00
Asteazkena: 10:00-13:00
Igandea eta Jai egunetan: 11.00-13.00
Aldez aurretik hitzartuta: 946 317 086.
Larunbata: 11.00-13.00 / 17.00-19.00
Ikastetxeak: 10.00tan asteazkenetan hitzartutako bisita.
Itxiera-egunak: Astearte guztiak (Jai-egunetako astearteak edota 20 pertsona baino gehiagoko taldea izanez, izan ezik. Abenduak 24, 25 eta 31 eta Urtarrilak 1 eta 6.

Sólo área de exposición del caserío vasco (20-30 min.)
Lunes, jueves y viernes: 10:00-13:00 / 17:00-19:00
Miércoles: 10:00-13:00
Sábado: 11.00-13.00 / 17.00-19.00
Domingos y festivos: 11.00-13.00 h.
Siempre con previa reserva: 946 317 086.
Colegios: visitas concertadas los miércoles a las 10.00 h.
Días de cierre: Todos los martes (salvo martes festivo, o con visita concertada de grupo de más de 20 personas). Los días 24, 25 y 31 de diciembre, y 1 y 6 de enero.

Honako Ekomuseo etnografikoaren atal bakoitzean XVII eta XIX. Mendeko euskaldunen usadioak, ohiturak eta bizimodua ikus ditzakeguz. Museo guztia ikusteko gutxienezko ordu bat beharrezkoa da. Bisita gidatuaren bidez egitekotan ordu bat eta erdi edota bi orduko tartea behar izango dugu. Hainbat grabatu, argazki eta kartel erakusten digute atal bakoitza eta bertan topa dezakegun oinarrizko piezak.

Bestalde, orain dela, 150.000 urte Europar-erdigunea hondatu zituzten glaziazio nagusitik Paleolito, Cromagnon, Neolito, Brontzezko Aroa eta Burdin Arora azaltzen duen parke tematikoa ikus dezakegu.

*Bar y Restaurante

El Ekomuseo etnográfico representa mediante módulos toda la historia del hábitat, las costumbres y las formas de vida de los vascos en el siglo XVII y XIX y si queremos asimilar su contenido necesitaremos mínimamente una hora, las visitas guiadas suelen durar de una hora a dos horas. Diversos grabados, fotos y una serie de carteles ilustran y explican lo principal de cada módulo y cada una de las principales piezas.

Además cuenta con un parque temático donde atravesaremos la época de las grandes glaciaciones, que asolaron Centro-Europa, hace más de 150.000 años; el Paleolítico, época del Cromagnon; el Neolítico y su Edad del Bronce; y la época del Hierro.

*Taberna eta jatetxea



# Parketxea: Areatza

**Gudairen Plaza, 1**
**AREATZA (Bizkaia)**
946739279
parketxea@hotmail.com

Egun guztietan irekita:
10:00 - 14:00 / 16:00 - 8:00
Abierto todos los días
10:00 - 14:00 / 16:00 - 18:00

Areatzako Herriko Plazan, Bizkaiako lurraldeko dagokion Gorbeiako Parke Naturalaren Interpretazio Zentroa dago. Hiru solairuko zentroa da eta bakoitza Gurutzera igotzerakoan topa dezakegun tarte altitudinalak ikus ditzakeguz.

- Beheko solairua (0-500m) Zorupea eta beheko partea: ibaiak eta itsasertzea, uraren indarra, biztanleria, uzta larreak,…
- Lehengo solairua: Basoaren eremua eta bere biztanleria. Baso ustiapenak, geologi formakuntzak,…
- Bigarren solairua (1000-1481m) Haitzak eta hauen formak, kobazuloak, eta Gurutzerako bidean dagoen Larrea.

En la plaza de Areatza, se encuentra el Centro de Interpretación del Parque Natural de Gorbeia correspondiente al Territorio de Bizkaia. El centro consta de tres plantas, cada una relacionada con un intervalo altitudinal en nuestra ascensión hasta la Cruz.

- Planta baja (0-500 m.) El subsuelo y la zona baja: ríos y riberas, la fuerza del agua, poblaciones, pastos de siega...
- Primera Planta (500-1000 m.) El dominio del bosque y sus habitantes. Explotaciones forestales, formaciones geológicas...
- Segunda planta (1000-1481 m.). Los roquedos y sus caprichosas formas, las cuevas y la pradera de montaña que nos aúpa hasta la Cruz.



# Orozkoko museo etnografikoa
## Museo etnográfico de Orozko

**Plaza Zubiaur**
**OROZKO (Bizkaia)**
946 33 98 23
museoa.orozko@bizkaia.org
www.orozkoudala.com

Ordutegia:
Asteartea - Asteazkena - Osteguna - Igandea - Jai egunak: 10.00 - 14.00
Ostirala - Larunbata: 10.00 - 14.00 / 17.00 - 19.00
Astelehena: Itxita
Uztaila - Abuztua (Egunero): 10.00 - 14.00 / 16.00 - 18.00
Dohainik.
Taldeak: Hitzartutako bisitak museoara deitzen

Horario:
Martes - Miércoles - Jueves - Domingos - Festivos: 10.00 - 14.00
Viernes - Sábados: 10.00 - 14.00 / 17.00 - 19.00
Lunes: Cerrado
Julio - Agosto (Todos los días): 10.00 - 14.00 / 16.00 - 18.00
Entrada gratuita
Grupos: Visitas concertadas llamando al museo

Museoa Legorburu Jauretxean dago kokatua. Kareaga Etxea izenez ere ezagutzen den eraikin bikain hau XVIII mendekoa da eta Zubiaurreko Enparantza nagusian dago, Orozko bailaran.

Museo honek bailarako bizimoduaren elementu, agiri eta lekukoak erakusten ditu ikuspegi ezberdinetatik. Horien bitartez, egungo errealitatea sortu duten arrazoi eta ondorioak ezagutu ditzakegu. Halaber, igorri nahi den mezua ez da bere edukira mugatu nahi; aitzitik, bisitaldiak jarraipena izan dezan nahi da, eta erakusketa honekin zerikusia duten lekuak bistatzea proposatzen da.

Museoari dagokionez, 'Orozkoko Museoa' hiru solairuko eraikina da eta bakoitza gai bat isladatzeko erabiltzen da: Orozko bailarako ondare historikoa; bizimodu tradizionala bailaran; eta Gorbeiako lurralde garaietako biztanleak.

Está ubicado en la Casa Palacio Legorburu, también conocida como Casa Kareaga. Es un edificio de carácter señorial del siglo XVIII y está situado en la plaza principal a pocos metros del ayuntamiento.

Este Museo recoge aquellos elementos, documentación y testimonios de la vida en el valle a lo largo del tiempo, bajo diferentes aspectos, conociendo así las causas y los efectos que han generado la realidad actual.

Es un edificio de tres plantas, cada una destinada a reflejar un tema: El Patrimonio Histórico del Valle, la Vida Tradicional y los Pobladores de las Tierras Altas del Gorbea. Así su objetivo principal es que tanto las actuales como las futuras generaciones tengan conocimiento de sus antepasados, de sus tradiciones, y peculiaridades. Que conociendo todo ello puedan valorarlo, conservarlo y respetarlo, cuidando además el medio ambiente tanto del Valle como del Parque Natural del Gorbeia.



# ADITU zerbitzu arkeologikoak

## Servicios Arqueológicos

## ADITU

**Maddalen, 35**
**UBIDE (Bizkaia)**
945 063 287
ikastaroak@aditu.info

Ordutegia:
Proiektuen arabera aldi baterako erakusketak. Aurrez aldetik kontsultatu:
Aditu Servicios Arqueológicos S.L.
Maddalen 26, 2B 48145 Ubide Bizkaia
info@aditu.info
945 063 287

Horario:
Exposiciones temporales en función de los proyectos.
Consultar previamente en:
Aditu Servicios Arqueológicos S.L.
Maddalen 26, 2B 48145 Ubide Bizkaia
info@aditu.info
945 063 287

Arkeologia zabaltzeko helburuarekin, Aditu Arkeologia Zerbitzuak, bere Ubideko xedean gela bat prestatu dute arkeologiari buruzko ikastaroak egiteko eta lantzen duten materialak eta aznategiei buruzko erakusketak egiteko. Honela, gure ondarea eta gure historioa ezagutzeko tresnak zabaltzen dute.

Como parte de la labor de socialización de la arqueología, Aditu Servicios Arqueológicos incorpora a su sede en Ubide un áula y sala donde realizar cursos de temática arqueológica y exposiciones temporales sobre los yacimientos y materiales con los que trabajan. De esta manera, contribuyen a dar a conocer nuestro patrimonio y enseñan las técnicas con las que conocer nuestra historia.

Gorbeia

TURISMOA
TURISMO

www.gorbeiaeuskadi.com

Gorbeialdeko Kuadrilla
Cuadrilla de Gorbeialdea

Gorbeialde
Landa Garapenerako Alkartea
Asociación de Desarrollo Rural

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Bizkaia